

ZORIONEKO ONDDOA

2000. urtea zen Maria eta Patxik bizi guztian lana egin zuten lantokietatik erretiroa hartu zutenean.

Mariak farmazia batean egiten zuen lana 25 urte zituenetik. Emakume oso langilea eta jatorra zen, hiru seme alaben ama.

Patxi berriz Azpeitiko udaltzaina izan zen urte askoan. Herriko txoko guztiak zehatz mehatz ezagutzen zituen eta baita herritarrak ere. Paseatzera joaten zirenean denek kaso egiten zien senar-emazteei. Askotan pake bila Izarraitz mendira joaten ziren.

Udazkeneko goiz eguzkitsu batean, perretxikuak biltzeko aitzakian, bizkarrean motxilak eta eskuan bastoia hartu eta mendi aldera habiatu ziren. Parrokiko ordulariak goizeko zortzi terdiak zirela adierazten zuen, eta herritarrak mugimenduan hasiak ziren. Haurrak eskolara bidean, guraso batzuk lanerako bidean eta kafetegietatik kafe eta pastel usain goxoa somatzen ziren. Gure senar emazteak berriz aldapan gora bixi bixi.

Bapatean onddo eder bat ikusi zuten pago baten ondoan. Gerturatu zirenean ordea, haitz-zulo batetik behera erori ziren. Buelbaka guztiz zorabiatuak, kolorez beteriko lurralde batera iritsi ziren.

Zur eta lur geratu ziren han ikusitakoarekin. Zuhaitz eta lore distiratsuak, animalia arraro eta bereziak eta zoriona gainezka zuten neska-mutiko jatorrak. Patxi eta Maria aho zabalik zeuden, ametsetan zeudela uste zuten.

Umeez ez zuten euskeraz hitzegiten, baina irrifarrez hurbildu zitzaizkien. Ez zuten apenas ezer jantzita ezta oinetakorik ere. Tipi hantzeko bizilekuetan bizi ziren, ez zuten ez telebista, ez mobil eta ezta ordenagailurik ere, baina Azpeitiko haurrak baino alaiago ikusten zituzten Patxik eta Mariak haur haiek.

Guztiz maitemindu ziren gure senar emazteak lurralde misteriotsuaz eta bertan bizitzen geratu ziren. Ahal zuten guztian laguntzen zieten hango biztanleei, baina nik uste berauek gehiago ikasi zutela haiek baino. Bizia nola gozatu deskubritu zuten. Zahartzaro lasai eta zoragarria bizitzeko aukera zabaldu zitzaien pago ondoko onddoari esker!